




TXIRRITXOLA

17. ZENBAKIA - 1.996.EKO EKAINA - BAKIOKO EUSKERA BATZORDEA

"DONINE" EGUNA BAKION



Tradiziozko jaia berau Bakion, ekainaren 24 - ko "San Juan Bautista" ren homenez.

"Donine eguna"-ri ekin aurretik, bezperako egunaz ohartu beharra dugu "Bidegintze eguna" hain zuzen:

San Juan-erako bidea hartu behar zuten erromeruek ordenaz eta garbirik aurkituko zituzten bideak, egun horretan agindako elkarlanari esker. Baserrietako hainbat hauzokide zortziko taldeetan elkartzen ziren bide garbiketak egiteko.

San Juan egunean, goizean goiz, hasten zen erromerien etorrera, Bakioko sarreran pilaturik, aintzina Bakiorako elektrizitate zentrala zenaren inguruan. Ondoren, erromeruak, ibilaldiari jarraiera emanez, ondo ikus zezaketeen bai baserriak eta bai tabernak lizar-adarrez orniturik zeudela.

Goizerdian San Juaneko bazeleizan mesa entzuten zen. Arratsalde, Tabernalde auzoan euskal-erromeria ezin hobez ospatzen zen Donine eguna.

Ez zen falta bertan, baserrietako emakumeen eskutik, ortuarien erakusketa ere: Donine makatzak eta maiatz-kereizaz beteriko lapotzarak jendeari udaberri-fruituaren lehen aukera emanez.

Mendaroko - erroskilla ez ziren falta festa horretan txutxeria eta pitxikeriez batera.

Arratsalde erdirantz, eguzkiak bere azken izpiak sartu orduko, gazte batzuk, Bermiokoak hain zuzen, erromeriari agurra ematen hasten ziren.

Iluntzean, "Artolak Dauro" edo antzeko martxa batekin azken puntua jartzen zitzaion "Donine egunari" Bakion.

SABIN BARAI ORMAZAK idatzitako
eskutitz baten itzulpena.

ETA GAINERA:

- Benito Meñakagaz solasean
- EZKONTZA (Arrioa eta Eztegunondoa)
- Dantza taldearen berriak
- Basoak - ingurugiroa - ekologia
- Abesbatzaren berriak
- Iniaki Martiartu poemagile
- Eskola txikiak
- "Musu beltza" ipuina
- Lehiaketa mundiala
- Dombora - pasa

BENITO MEÑAKAGAZ ELKARRIZKETA SAN JUAN DALA ETA EZ DALA

Beran 80 urteak bizkarrean daroazelarik, Benitok begi - bistan dauka gizon alai eta bizkorra dala. San Juaneko goraberetaz hurbil bizi izan da eta bizi da, bere etxeaurrean urten ezkerro Gaztelugatzeako panoramika asko eder ikusten da eta.

G.- Benito, beti izan dogo keska txiki bat bakiotarrol eta bermeotarrak San Juan - haitza dela eta.

Izan ote da inoiz Bakiokoa?.

E.- San Juan beti izan da Bermeokoa, ez bakarrik S. Juan, Bakioko errekarainoko baserriak eta etxeak bebai.

Baina, Maximo Zabala alkatea izan zenean akordu bat egon zan Bermeogaz eta S. Pelaio guztie be Bakiorako geratu zen. Dana dala S. Juanegaz jaleo bat egon zan:

Tratue egin eta gero, Bakiotarrak munarriak S. Juan Bakiorako dala ipini ebazan; Bermiotarrak, gauez, munarriek atera, Bermioko Udaletxe aurrean eroan eta txitki-txiki egin ebazan eta holan Bermiorako lotu zen berriro. Neure osaba bat be parte izan zan horretan. Tratu barri bat egin behar izan zan eta azkenean S. Pelaioko baserri batzuk ere Bermeorako lotu ziren: Urkidi, Gizizti, Erdikoetxe, Kontxabale, Felagorriene, Arantzadi, Zizilione eta Sagarre.

G.- Eta Ermu ?.

E.- Ermu beti Bermio, nahiz eta bai Ermukoak eta bai beste baserrietakoak hartu emon gehiago euki Bakiogaz, eskolara eta dana Bakion ibiltzen ziren.

G.- Gogoratzen zara noiz eraiki zen San Juan gazteluhaitz gaibeau ?

E.- Ez, horixe ez, baina zaharra bota eta barrie egin bertako plakan jartzen dau, Felix Ermukon aitxitxek hartu zuen parte horretan. Arrezkero, orain dala urte gitxi, erre egin zeurien eta Bermiok konpondu zeuen.

Lehen bertoko jendie arduratzen zan San Juanegaz, baserrietako jentie, maiordomo bat egoten zan, baina orain Eliziek eta heurek arduratzen dira.


G.- Zer dela eta deko jendiek hainbeste joera S. Juanera etorteko ?.

E.- Bermioko arrantzialiek atunetan urten baino lehen, heuren neskatillek S. Juanera etortzen ziren, promesa batelez atun asko ekarteko, eta gero itzelezko jaie egiten zeurien hemen, gure taberniek hainbeste oilosko prepareu deu harentzat. Orain be etorten dire baina gitxiago. Barkuek be, itsas-zabalera urten baino arinago buelta bat edo bi emoten dabez S. Juanetik.

G.- Eta beste herri batzuetakoak be etorten dire ezta ?.

E.- Bai, Larroitxarrak etortzen ziren. Hareek San Juan bezperan, goizien goizetik etortzen ziren eta joan be arin.

G.- Gero, Arritarrak, eta ondiño be etorten dire baina



honeek San Iñazio egunean etorten dire.

G.- Zer dala ta etorten diren, badakizu ?.

E.- Hori be promesa batelez izango da, gainera kurtze batzuk jarraituz etorten ziren. Ondiño be ba dauz kurtziek: Atxuloko kurtzie eta Larretxiñeko kurtzie.

Geu, San Pelaiotarrak Meñaka joatielez da hori: Mezie entzun, bazkarie bertan jan eta gero berriro hona afari-meriendie berton egiten. Hori Azentzio bueltan egiten gendun.

Benitori eskerrak emonaz amaitu gendun firi-fare hau eta merezi duela uste dogu aurrekoengandik hainbat eta hainbat gorabehera ikastea.

Arrioa:

Baina ezkontzako ekanduen artean, arriok toki berezia behar dau. Orduan, gure aurretikoez garrantzi handia emoten eutsoen arrioa eroteari. Honetan beskek ardura gehiago izaten eben. Arrioa zenbat eta ugariagoa, ezkontza hobea. Mutilak, osterak, ez ziran hainbeste arduratzen. Jantziak, oge-estalkiak, izarak, galtzerdiak, forua, ispilua, eta abar luzea emaztegaiak eroan behar izaten ebazan eta. Gorua burdinko aurrekaldean danok ikusteko eran, erdian egurrezko kutxea eta ispilua atzekaldean eroezan. Ezkonbarri bizi izan, emaztearen beharrerako ardural, bere handikeriak baino garrantzi handiagokoa izan beharko ebala adierazoteko. Senargaiak, barriz, gehien baten, lanabesak erosten ebazan.

Arrio erakusketea ohitura berezia zab. Bera erakusteko, egun bat beren beregi aukeratzen eben. Nonork zenbat eta gauza gehiago erakutsi, aberatsago agertzen zan danon aurrean. Honegaitik nesken ardura handia.

Erakuzketa hau, batzuetan, bigarren deiena ostean egiten zan. Honen ostean, ezkontzea nahiko ziurra zan eta neskeak bere lagunei ha erakusteko eguna aukeratzen eban. Egund honer nonon "zato eguna" esan izan jako. Erakutsi ostean ezkontzea zelaz eta non izango zan, nortzuk joango ziran eta abarrekoak azaltzen ebazan.

Beste batzuetan, barriz, erakusketa hau ezkontza egunean bertan izaten zan. Ezteguetara joaten zan guztiei erakusten eutseen. Arrioa ezkongaien ogean zabaltzen zan eta, danak ikusi ostean, baten batek hurrengo itaun hau egiten eban: "zer falta dogu oge honetan?", eta besteren batek erantzun: "ezkonbarriak!"

Arrioa, baina, batzuetan, ezkondu baino urte bat edo bi lehenago hasten eban batzen. Beste batzuk, osterak, txiki-txikitatik. Esate baterako, leku batzuetan, neskei txikitatik linua eraiteko lur arloa emoten eutsoen gurasoek. Neskei, goruetan egiten ikasten ebenean, oihalak egiten be irakasten eutseen. Holantxe apurka - apurka euren arriok eratzuz joaten ziran. Edo ezkondu edo ezkondu ez, holan egiten eben, neska bakotzak bere arrioa euki behar ei ebalako.

Arrio lorreteak ikusgarria izaten zan. Sarritan neska mutilaren etxera ezkontzen zan. Orduan, arrioa hara eroan behar. Emaztegaiaren aitak arrioa burdi baten gainean eroan be, jakina. Ez edozelako burdian, baina. Honetarako aharito bat burdiaren aurretik joaten zan. Gainera, ardatzak koipez igurdi barik eukiten ebezan eta han joaten zan


burdia kirrinkada hotsean. Idiek txintxarri eta margo askotan zerrendez apaindutako bigizteak edo idunekoak erosten ebezan. Burdi inguruan, baina, gazte taldea dantzaka, santzoka, abestuta eta soinuak jotzen ibiltzen zan. Soloetan beharrean egozanak berehala konturatzen ziran burdibidetik zer etorren. Ha, bai poza! Hareek santzoka joaten baziran, burdia, barriz, kirrinkaka.

Burdi gainean, sukaldeko trsnak, buztarria, oinetakoak, gonak, jantzitako ogea, batzuetan, eta abar ta abar. Honeen artean, huts egin barik, jakina, hiljantzia. Berau arrio guztietan erosten eben eta.

Inoiz burdiaren aurretik "aialdekoak" joaten ziran. Aialdekoak emaztegaiaren neska lagunak izaten ziran eta harek ezkontzeagatik hartzen ebazan opariak, otzara banatan, euren euren buruen gainean erosten ebezan. Honez gain, ezkontza egunean aialdekoek senargaia bere emaztegaiaren aurkezten eutsoen.

Eztenguondoa:

Ezteguak egin eta gero, gaur egund ohi dan lez, orduan be, ahal izan ebenak egund batzuetarako lur barriak ikustera joaten ziran.



Gehienetan uri handietara, hau da, Bilbora Bizkaian, Donostiara Gipuzkoan, Iruñera Naparroan edota Baionara Iparraldean.

Noiz deo noiz be, beste herriren baten euker senitartekoren baten baserrira edo etcera egund batzuk emotera eta, bide batez, hareri hango beharretan laguntzen joaten ziran. Ez egoan denporea galtzeko astirik, aurkil

Baina gehienak, inora urten ezinik egozala, etxean lotzen ziran. Euren bizi barrian zorientasunaren eske, etorkizunari itxaropen osoz begiratzen eutsoela. Osterantzean...

" Ezkongaletan zeozer banintzan, ezkondu eta ezer be ez. Ederzalea banintzan bere, aspertu nintzan ederrez. Neure gogoa egin neban ta orain bizi naz negarrez "

Biografia:

EUSKALDUNAK - Orlixe. 1.935

EUSKAL ETNIA - M. Estonba / D. Arrinda. 1.981

EUSKALDUNAK - J. Legarreta. 1.980

Iniaki MARTIARTU

1995.eko zemendian

ITXAS-ALDEREN BARRIAK TURKIARA EGINDAKO JOAN-ETORRIA

Joan dan apirilaren 12tik 16ra, ITXAS-ALDEko dantzariak nagusienak Turkiako uririk garrantzitsuenera -Istanbulera- joan ginan, bertako I.F.D. taldeko arduradunek konbidatuta.

Bidaia abioiez egin genduan, Frankfurtetik, eta bertan eurek ipinitako autobusez ibili ginan. Gure egoitza eskola haundi bat izan zan, Turkiako ospetsuena eta garestiena.

Istanbul uria oso interesgarria da, gehien bat, Europan eta Asian dagoalako. 12.000.000 biztanle daukaz, eta euretatik, 7.000.000 Asiako alderdian. Gure eskola Asian egoan, eta Istanbulera erdira joateko, 40 km egin behar izaten genduzan, autobide haundi batez, Borforoko zubi nagusira heldu arte. Asiako zati horretan kokatzen dira sendirik txiroenak eta islamiar kulturarik arrakastatsuena. Istanbul kontraste haundikoa da, Europako alderdian gizartea laikitzen agertzen da baina bertan be, hainbat andere eta neskato gazte ikusten dira «txador»egaz jantzita.

Istanbul bertan hainbat toki ikusi genduzan: Bazar nagusia, Santa Sofia mezkita, mezkita urdina, eta abar... Borfortik gora ere eroan ginduezan, itsas-ontziz, Itsaso Baltzaraino, eta afari on batera konbidatu ginduezan, baita jantoki eder baten jan ere.

Azkenengo arratsaldean izan zan dantza-ekitaldia, eta bertako taldeakaz batera, euskal folkloreak 30 minutuko agerpen txikitxu bat eskeini genduan, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako dantzakaz.

Euren folklorea oso desbardina da, eta uztailaren 30ean ikusi ahal izango dogu Bakion.

ITXAS-ALDE

Euskal Kultura Taldea

ITXAS-ALDEko dan Unai Beitiaren (Artzakoa) egun horreetako bizikerea eta iruzkina dakartsueguz jarraian:



ITXAS-ALDE TURKIAN

ITXAS-ALDE taldean zintzo jarraitzen dogu geure eginbeharretan eta oraingoan, jorrailaren hamabitik hamaseirarte, Turkian izan gara Istanbulera talde bategaz hartuemonak sendotu eta geure dantzak bertan erakustekotan.

Ez genkian bidai honetan zer aurkituko genduan, baina guztiz ona ta aberasgarria izan jaku esperientzia barri hau.


Bertako jendeak oso ondo hartu gaitu eta gustora egon gara han izan garan egunetan. Gainera, euskal dantzak ikusitakoan harrিতa lotu ziran, hain eder eta eurentzako ezezagunak ziralako.

Holan ba, pozik eta indar barrিতa etorri gara udako ekitaldiak ondo prestatzeko eta lanean segitzeko.

UNAI BEITIA

ITXAS-ALDEko dantzaria

BASOAK - INGURUGIROA - EKOLOGIA



Aspaldiotan, danon ago-mihinetan eta askoren buru-bihotzetan dago egon dalako ingurugiroa.

Ingurugiroa birreskuratuteko eta ez laskituteko ahaleginak, gure artean gero ta gehiago badira be, Europako beste herrialdeetako gitxiengo mailea jaresteko makina bat ekintza egin behar dogu oraindikarren. Ekologiaren aldetik, guretariko bakotxak badauka zer non ikasirik, gero!

Askotan, ingurugiroari gora ta behera eragon daroatsogu, baina gure ingurugiroa osotuten daben eragileek norainoko garrantzia dauken eta beharrezkoak diran ez gara ondo-ondo konturatuten.

Esate baterako, BASOAK, ZUGATZAK.

Basook, zugatzok, ez litzakez ezer izango, euririk, edo hobeto esanda, eguzkirik ez balego. Hiru osogaiok, arean da, eguzkia, euria ta basoa, gure bizi-katearen oinarri-oinarrizko eraginbidea sortuten dabe, arnasaia sortutearena, hain zuzen. Berau, aurrera biziteko behar beharrezkoa dogu eta.

Hektaera batek baso, esaterako, 10 lagunek behar daben beste arnasaia sortuten dau. Berogailuek, erretze motorrek, leku txikian lagun asko biziteak arnasaia asko xahutu edo eskatuten dabe. Guzti honeen inguruan dagoan basoak, fotosintesiaren bitartez, galdu dan beste arnasaia sortu leike, galdutako hori bardinduz. Ez dogu ahaztu behar, baina, ludi osoan gizakiek hartuten daben arnasairik gehiena itsasbedarrek eragiten dabena!

Baina, batez be, basoek bizi-katearen eta ingurugiroan dauken eragin edo garrantzi haundi hori argituteko eta gu beronetaz jaubetu gaitazan, beioatzuez idazlantxu honetan labur-labur argibide batzuk.

Basoak gure ingurugiroaren mikroklimea jagoten lagunduten dau. Urte sasoi legorretan, basoa dagoan lurraldeetan, besteetan baino euri gehiago eta sarriagotan egingo dau.

Zugatzbako lekuetan udak askoz be beroagoak izaten dira. Eguzkiak baso inguruetan, basobako lurretan baino gitxiago berotuten dauanez, aideak, basora heldukeran, jaisteko jokerea dauka. Aide berorik ez izankeran, pisu gitxikoa izango da eta.



Egunez sortuten dan aide beroak, gauetz gorantza egiten dau, leku eginik. Basoak sortuten dauan aide hozkirri eta hezoak, aide beroak hutsik itzitako leku hori beteko dau, era berean, aidea barrizatuz. Hau berau, egunez be jazo leiteke, maila txikiagoan, baina. Nahikoa izaten da 3 edota 4 graduko hotzbero aldea izatea, etenbako aide jariora lortu daigun.

Eguraldi eguzkitsuetan, beroturako aidea basora heldukeran, hezotasunez bete ohi da eta euria eragingo dau. Ondorioz, baso inguruetan zugatzbako lekuetan baino euri gehiago eta sarriago egingo dau.

HAIZEAREN ERAGINA:


Zugatz eta beroneen gerizpeen bidez, haizeak eta eguzkiak eragindako lurrunketea neurri baten gitxiagotu leiteke, basoko lur azalean dabilen aidea gitxi higituten dalako. Ostera, zugatzbako tokietan, haizeak itzelezko lurrunketea sortuten dau, eta ondorioz, legortek agertuko dira. Geroago, haizeak hauts-hedoiak sortuko dauz, lur kopuru haundiak aldean eroanez eta lur higadurea sortuz.

Itsasaldeko hare askodun haretzetan, haizea dala eta, haremuneak sortuten dira.



HAREMUNEAK LOTUTeko ONENA, BASOA.





Haizeak jo ahalean, haremune honeek lekuz aldatuten hasiko dira. Beroneek lotutea gatx-gatxa da.

Ekatx gogorra dagoanetan, haremuneok aurrera egingo dabe, lurrak, soloak eta etxaldeak, sarritan, lurperatu leikeezala.

Hau guztiau galazoteko, bide bat besterik ez dago. Hau da, haretan landatu leitekezan zugatzak sartutea. Sustarrek hareari eusten deutsoe (batzuetan, sustarrek 30 metroko luzerea hartu leikee). Honetara, haizearen indarra makaldu egiten da eta lurraren hezotasunari eusten jako. Era berean, zugatzon artean hareari eutsiko deutsoen landara barriak hazi leitekez. (Gomutau, osterantzean, neguro-neguro Enderika eta Ondarre etxe inguruetan jazoten dana)

EURIA ETA EGUZKIAREN ERAGINA:

Basorik ezean, euria egiterakoan, berau artez-arte jausten da behearen ganera. Euriaren euriz, behearen ganean ur potxingoak sortuko dira eta urak nongura errekatxuak egingo dauz, lur

urtua aldean eroanez. Beheak, baina, ur gitxi xurgatu edo iruntsiko dau. Guzti honen ondorioz, ur zarramarra haundiegia lur higadura itzela sortuko dau.

Eguzkiak j o t e n dauanean, baina, ura behingoa lurrunduten d a n e z , lurraren hezotasuna arin amaituko da. Orduan, lur azpiko urak

gorantza igongo dau eta ondorioz, lurra eta aidea bera be arin bai arin legortuko dira. Lur eremua edo basamortua sortuz.

Leku berean, ostera, zugatzak balegoz, beroneen orriek euriaren zatiren bat hartuko leukee eta enparauko ura astiro-astiro behearen ganera jausiko litzake. Holan, zugatzon azpiko landarek jausitako ur gehiena hartuko leukee, ur gordekinaren antzera, lurra bera hezo itziz. Eguzki eginkeran, zugatzon sustarrek lurretik apurka-apurka ura hartuko leukee eta ur hori, igonez, orrietaraino helduko litzake. Ur honen zati bat lurrundu egin eta aidera joango litzake. Inguruari hezo-hezo eutsiz. Esate baterako, 700.000 orriko haretx batek egunean 1.000 litro lurrun baino gehiago bota daike aidera. Honetara, bada, lurra eta aidea beti hezo egongo litzakez, eta ez litzakez legortuko.

Lurrak biluzik dagoanean, ostera, lur higadura, haize eta urak sortuten dabe suntsiketea.

Basoak behearen ganeko ongarriei eutsiko deutse, haize eta urak ongarriok beheko

aldeko lurraldeetara (lautada, erreka, eta abarretara...) ez daiezan eroan.

Orain, basoa ebagi edo kendu ezkerok, behearen ganeko lurraren higadura hasten da, denpora luze-luzean izan barik, hasi be. Eta ondorioz, lur horretan ezin izango dogu ezer landatu.




Euri eginkeran, errekatxu eta ibaietako urek marroi margoa hartuko leukee, lur eta hondakinak nahastuta daroezalako. Hondakin honeek urtokietan batuko litzakez, apurka-apurka beteten joango dirala, urtokion betebeharrak sostortu artean.

Urtokirik (zingirarik) egon ez arren, basoa behar-beharrezkoa da. Bera ezik, urek bertara eroandako hondakinok ibai amaieraino heldu eta abereen eta landaren bizitzea ito leikee. Basoak lurraren higadura eta suntsiketea saihestu daitez eta. (Arballo mendi-inguruetan, esate baterako)

Euriak eragindako lur higadura haundiak edo sakonak lurteak edo lurjausiak sortu leikez. Lur buztintsu eta hidrofiloiz (bere barruan ur asko euki leikena, urtsua) osotutako mendi aldaztsuan, basoak, behean ur larregi sartutea galazoten dau.

Toki berean, baso bera kenduta, euri eginkeran lur buztintsu berehalako baten urez beteko da. Eta ur larregiz betetako lurra aurbeheran joango litzake, laprast eginez, lurrei aurbeheran joan eraginik. Lur eta harriez sortutako multzo handiak mendian behera etorkeran, lurjausiak sortuten dabez, eta azken honeek beherantzako bidean idoroten dabezan larra, solo, bide eta etxeak lurperatu leikeez, kalte haundiak sortuz. (Landabarrenan behera Goikoleara heldu baino lehenago ia urtero bidearen ganera jausten diran lur moltzoak, esaterako)

BASORIK EZAK SORTZEN DAUAN
LURJAUSIA ETA ARRISKUA.



Beste batzuetan, euri parra-parra egiten dauanetan, uriolak egon ez daitezkan, basoak asko be asko lagundu leike. Basoko lurrazpiko ura, jausitako euri-ur gehiena hartuten dau. Hau apurka-apurka lurrazpiko urak dagozan lekuetara igaroz doa. Basoak jagondako behearen ganea edo lur azala «humus» izeneko ongarriaz aberats baino aberatsagoa izango da. Euri egin ostean, jausitako ur kopuruaren zati bat errekaraino isuriko da, eta errekearen ur maileak neurrian eta astiro igongo dau. Legorteetan be, basoko lurrazpiko ur bere barruan gordeta dauazan ur gordakinak, lurrazpiko ur geruzetara igaroten jarraituko dau. Eta honen ondorioz, bada, errekearen ur mailea apurka-apurka jaisten hasiko da.

Baina lur eremu izan ezker, arean da, basobakoa, euri egitean, agirian dagoan behea berehalan urez beteten hasiko da eta jausitako ura, soster barik, errekeara jatsiko da. Euri ugari egin ondoren, errekearen ur maileak begitxidegi baten igongo dau, uriol arriskua haundiagotuz. (Gomutan izan azkenengo uriol haundi biak Bakion) Legorteetan, oster, lurrazpiko uren mailea beharntza joango da eta ondorioz, iturriak hustuko dira eta errekearen ur maileak be, agiri-agirian behera egingo dau.

Edurtzetan, esate baterako, basobako lurraldea arin be arin estaldu leiteke edur moltzo haundiaz. Basodun lurraldeetan, barriz, edur geruzea nahiko mehea izango da.

Udabarria heldukeran, zugatzbako bazterretan lehenago hasten da edurraren urtuketea, basodunetan baino. Azken honeetan, basodunetan, hain zuzen, urtutako edurra erreka

eta urtokietara apurka-apurka jaisten hasiko danez, uriol arriskua txikia baino txikiagoa izango da.

LURRAZPIKO URAK:

Lurrazpiko urak aitatu doguzan ezker, basoko zugatzek lurrazpiko uraren igokerea ekidin leikee. Zugatzon sustarrek lurrazpiko uraren dagoan urari igon eragiten deutsoe, lurrazpiko ur maileari bardin-bardin eutsiz, lur buztintsuak izanda be. Zugatzok ebagi ezker, sustarrek eusten eben ura gorantza joango da berez, soster barik. Honen ondorioz, osinetan ur lodia agertuko da eta lurrazpiko ur maileak argiro be argiro igongo dau.

Azaldutakoa, bada, gauza jakina eta agirikoa da.

Egia da, ingurugiroa jagoteko gauza handirik egiten ez doguna. Hau esateko ez dogu ezelango goi mailako jakitunik izan behar. Ekologiaren aldekorik eza argi-argia da guregan. Arlo honetan ia dana daukagu egingai. Guretariko bakotzak zein erakundeek, Legearen egileen zein norberearen jardunkerearen aldetik.

Etokizuna hobetagoa izango dalakoan...!

Iniaki MARTIARTU
1996.eko jorrrailan

Berbalapikoa

ingurugiro= danon bizi-ingurua.
birreskuratu= galdutakoa atzera irabazi.
jaretsi= lortu.
-eri eragon= -eri buruz berba egin.
eragile= faktore.
osogai= elementu.
eraginbide= prozesu.
arnasgai= oxigeno.
xahutu= gastatu, erabili.
ludi= mundu.
eragin= sortu.
legor= siku.
hozkirri= fresko.
hezo= umel, busti.
hotzbero= tenperatura.
etenbako= lotubako, geldibako.
hezotasun= bustitasun, umeltasun.
higitu= mobidu.
lurrunketa= ura lurrun bihurtukeran.
legorte= siketa.
higadura= erosino.
haretza= haritza (Bakion), hondartza.
xurgatu= lurrazpiko euri-ura bereganatukeran.
zarramarra= joan-etorri, zirkulazino.
gordekin= errekerba.
suntsiketa= zozzer laskitukeran, hondamen.
ongarri= lurra emonkor izan daiten botaten jakon satsa.
lautada= zabalguno, zelai leun-leuna.
urtoki= urgeldi, zingira.
sostortu= oztopatu, galazo.
saihestu= ekidin, galazo.
ldoro= aurkitu.
geruza= estalki, azal, (edur geruza).
soster= oztopo.
ekidin= galazo, saihestu.
osin= putzu.
egingai= egiteko.
jardukera= jokabide, jokaera.

HERRIKO TALDEEN BERRI

Zuetariko asko edoo gutxienez batzuk, pasadan maiatzaren ilean ikusiko zenutenez, Bakio'ko Abesbatzak eleizan abestu zuen Udaberriko kontzertuak zirela medio.

Ez genuen guk geuk bakarrik abestu, ez. Beste bi herritako abesbatzek ere abestu zuten hots, Berrizko gaztetxoan abesbatza eta Deustuko abesbatzak.

Espero dugu abestalditxo hura gustatu izatea gure gogo onenez egin baikeuen.


Gu, geure aldetik ere Dustun izan gara abesten eta Berriz-era joatekotan ere bagaude.

Horrek honela, ikusiko duzue gu ere bagabiltzala eta ondo ibili ere bagaude.

Beraz, hurrengorarte agurtzen gara beste batean berri gehiago zuei aditzera emateko asmoz.

Gogoratu nahi dizuegu datorreen ekainaren 16 ean "abesbatzaren eguna" izango dela pasadan urtean Bakion izan zen legez. Aurten Sondikan izango da eta denok zaudete hara gonbidatuta.

BAKIO'KO ABESBATZA



AZKEN SASTADEA IZANGO ETE?

Txin, txin, txin...!
Mailuak trintxetari ekin.

Harria negarrez,
eutsi ezinik.

Txin, txin, txin...!
Mailuak trintxetari ekin.

Mustur zorrotz honek
erruki barik.

Txin, txin, txin...!
Mailuak trintxetari ekin.

Harrizko bihotza
birrindu arte.

Txin, txin, txin...!
Mailuak trintxetari ekin.

Heriotz samina
helduko ete?

Txin, txin, txin...!

Mailuak trintxetari ekin.

Oi, gure Euskal harrizko Herri hau!

Txin, txin, txin...!

*Iniaki MARTIARTU
1988.eko zemendian*

Berbalapikoa
trintxeta= zizel, zulakaitz.

OLERKIA:

«Ihr liebt den Haß und wollt die Welt dran
messen.

Ihr werft dem Tier im Menschen Futter hin,
damit es wächst, das Tier tief in Euch drin!
Das Tier im Menschen soll den Menschen
fressen.»

Erich Kästner - 1932

«Gorrotoa maite eta honen arabera mundua
neurtuko dozue.

Gizakiaren barru piztiari jana jaurtiten
deutsozue,
zeuon barrenean sakon-sakon hazi daiten!
Barru pizti horrek gizakia bera irunsi beharko
leuke.»

Itzullta: Iniaki MARTIARTUK -1996

ESKOLA TXIKIEN OIHUA !

Ez dago asko pentsatu beharrik
GARRAZI horien atzean eskutatzen dena
antzemateko.

ZER DELA ETA ?

Ezarri berria den Eskolen antolaketari
esker, herri txikietako umeak, hamabi urtetik
hasita egunero bidaiatzen hasiko direlako

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako
ikasteteetara joateko.

NOREN MESEDERAKO ?

Kalitatea medio delarik, asko saiatu
dira Gobernutik antolaketa horren abantaiak
errepikatzen. Baina oraindik herri txikien
argudioak desestatzeko gai ez dira izan:

- Eskolak hustuz, herri txikiak hustu.
- Umeak bere urbileko ingurunetik atera.
- Famili, lagun eta herri giroak apurtu.
- Hezkuntza berbera hartu, baina nekatuago (goizean goiz jaiki, garraiatuak izan, egonezinak...)
- Irakasle berberak (maisuu-maistrak) gai berberak emateko.
- Hezkuntza fisikoa eta Musika espezialistak behar direla? Noski, baina zergaitik ez herri txikien artean elkar-banatuta?


Ez da bakarrik Eskola txikien ahotsa ari garena. Hainbat Udalerriko ordezkariak, nekazal



sindikatuak eta Nekazari eta Arrantza saileko kontseilariak gauza berbera dakarrela plangintza horrek.

Hala eta guztiz ere, Gobernuak, eta Hezkuntza sailak bereziki, bere asmoak aurrera daramatza, aldarrikapen guztiak itoz.

MUSU BELTZA



Gaur nire urtebetetzeak dira, 14 urte betetzen ditut.

Madiaren etxera joan naiza, janaria eta ura

eramatera. Berak ezin ditu jaso gurarasoak zaindu behar dituelako, zauriturik bait daude.

Bere gurasoak lanean zeunden, soroan, lehergailu batek eztanda egin zuenean. Madia

etxean zegoen eta ez zitzaion ezer gertatu (eskerrak).

Madia oso polita da, Sarajevo osoko neskarik ederrena. Hamairu urte eta bi begi beltz dauzka.

Bere begiak... Gauean, bere begiek bi izar dirudite. Ilargiak inbiria izan beharko lieke. Bi laku beltz, handi, sakon diran, bere begiak. Bere ezpainak, berriz hain mamintsuak, hain gorriak...

Musukatuko nuke. Bere azala, hain leun eta txuria... Maite dut, nire indar guztiakin maite dut.

Oraindik ez dizkiot nire sentimenduak adierazi, baina gaur agian...

Parixen bizitzea amesten dut. Amak txikitan esaten zidan umeak Parixetik zetozeela. Asmoak ikusi ditut Parixeko argazkian, amona hangoa bait genuen. Bera ere oso polita zen, Madia bezala. Serbiar batek erahil zuen, ezin izan genuen ehortzi.

Oraindik gordetzen dut Parixeko argazki bat, ohe azpian. Orain dela asko erre zituen guztiak gure amak.

Askotan pentsatzen dut Sarajevotik ihes egitea. Dena pentsatuta daukat. Ondo pentsatuta ere ! "Kasko urdinen" konboiak iristen dira larunbatero. Ilargirik gabeko gau batetan izango da, 2 aste barru.

Madia hartu eta blindatu batean sartuko gera. Sarajevotik bostpasei kilometrora salto egingo dugu. Muga igaro eta sabu izango gera. Salbu eta aske !

Gogor jardungo naiz egun hori iristen den artean, Madia ondo bizitzeko aina diru lortu arte. Parixera joango gera noski.

Iritxi naiz Madiaren etxera. Poltsa eman diot eta berak niri oparia. Zer izango ote da? Lore bat ! Nun lortu duzu? Negua da-ta!

Neska hau sorgina da, zihur nago.

Bere gurasoak lotan daude. Sutondora goaz eta han esaten diot pentsatzen egon naizena. Baietza eman dit. Nola sentitzen naiz? Alai, goibel, Saturnoren eraztun batean korrika, Ilargian, gabirai bat bezala, egon... Neska hau sorgina da, zoraturik dago eta maite dut ! Eta baita berak ni ere!

Munduko pertsonarik zoriontsuena naiz.

Iritxi da eguna, Ilargirik ez dago, eta hasi da gure blindatua martxan.

Madia nire ondoan dago, lasai eta alai.

Madia musukatzen dut. Minutu bat barru korrika hasi behar gera. Baste musu bat eta... zer da hori? Serbiar bat! kaka! Ikusi gaitu! Madia, blindatura azkar! Tiro hotsa eta Madia lurrean dago. Azkar. Madia lurretik hartu eta blindatura korrika. Odol asko galtzen du.

Bala baten hotsa eta mina, min asko. Bizkarrean jo nau. Erori naiz. Badakit zer datorren orain. Tiro bana eta dena bukatuko da. Madia, maitea... Besarkatu dut.

Azkeneko musu bat, musu beltza.

AIORA AGIRRE
MARTINEZ-en ipuin saritua

LEHIAKETA MUNDIALA

1.- Giza gorputzaren funtzionamenduan, host, biologian ba al daukate eraginik edota garrantzirik ingurugiroa osatzen duten eragileek?

2.- Suposatuz Bakio'ko biztanlegoa 1.200 pertsonatakoa dela, zenbat hektarea beharko lirateke pertsona guztientzako arnasgaia sortzeko?

3.- Basoak ba al daukate eraginik mikrokliman? Arrazoitu galdera.

4.- Pentsatu pixkat eta erantzun. Bakio nahiko leku hezea da, beraz, lehorteak urriak izango dira.

Zergaitik da hezea Bakioko herria? (Azaldu erantzuna)

5.- Bakio, hondartzadun herria da. Denbora asko dela Bakion ere haremuneak azaldu ziren. Hauek mugikortasuna hartzen dute haizearen eraginez ondorioz hondamendi hauei aurre egiteko?

6.- Lur azpiko urak gorantz igotzean ura behingoan lehorteagatik leku batzuetan maiz ematen da. Ba la du horrek era batetako edo bestelako eraginik?

7.- Baserritarrek eta batez ere abereak eta landareak dituztenek, zergaitik jotzen dute beharrezkotzat basoà?

8.- Zein motatako lurrek hartzen dute mugikortasun haundiena ura iragaztean?
- Zer dela eta mendialdazsuetan ezin eman daiteke era hauetako lurrik?

9.- Aurren aipatutako eta zeuk azldutakoa gertatzen al da Bakio inguruan?

